

# Abendu aldia 2010

Zuzen egingo deutse auzia (Is 11)  
Neure atzetik DATOR!



Il gida

# Bihotza prestatu...

## GOGOETAK...

“Oparotasunak eta segurtasunak gurariaren aurka, itxaropenaren aurka immunizatu gaitue; gure erloju digitalek markatzen deuskuen orainaldi txiki-txikian bizi gara eta ez gara agindu izan jakun geroa grinaz nahi izateko gauza” (Dolores Aleixandre).

“Errukia zuzentasun erara gauzatzeak ataraten dau Elizea bere baitatik eta leku jakin batean jarten dau: giza oinazea gertatzen dan lekuan, giza-kien deadarrak entzuten diran lekuan”. (Jon Sobrino)

*Bete, Jauna, gure bizitza zure aberastasunaz.  
Isuri gure bihotzetan zure maitasunezko Espiritua.  
Prestatu gaizuz harrerea egin deizugun,  
eta geratu zaitez gugaz, beti gugaz,  
zure maitasunaren lekuko izan gaitzan,  
batez ere txiro eta behartsuen artean.*

# Irakurri... Ulertu...

**Is 11, 1-10 ... zuzen egingo deutse auzia...**

**Sal 71 “Makalen erregua”**

Isaiasen iragarpenekin jarraituko dogu: Jeseren zuhaitz ondotik kimu barria urtengo da, Mesias desbardina. Bere erregetza txiro eta makalen aldeko zuzentasunagaitik eta krezino guztia-  
rentzat ezarriko dan bakeagaitik nabarmenduko dalako; horixe dino gaurko salmoak.

**Mt 3, 1-12**

**... NEURE ATZETIK DATOR...**

Joan Bateatzailea da gaurko ebanjelioko protagonista; bere egitekoa igarokorra da, Beste bat da historiako benetako protagonista: Jaungoikoaren izenean datorrenak doako maitasuna dakar baina harrerea itxaroten dau gugandik. Joanek beharrezkoa ez dana, azalekoa, trabak alde batera itzi eta NEURE ATZETIK DATORRENA antzematen laguntzen deusku...

## Gaurkotu

**“Atondu eizue Jaunaren bidea” (Mt 3,3)**

Zelan prestatzen dot neure burua, etengabe etorri datorren Jaunak nire bizitzan eragina izan dagian? Bera beti dago zain. Atondu behar dogun bidea, neure bizitzakoa, gizarte bizitzakoa..., ezaguna dogun bere bizitzako ibilbidean sumatzen doguzan elementuez eraikita dago.

# Otoitz egin... begietsi...

Mugek herriak errespetatzen dabez baina senideen arteko gorrotoak ahazten dabez eta inori ez jako bere legea besteen gaineratik ezartzen izten. Epaileen tronua esklaboek hartzen dabe eta txikiago agertzen dana dago guztiaren buru, agintea zerbitzu dalako eta legea babes.

Zurean armak ez dira ez asmakizun boteretsuak, ez karga ez tandagarriak, ezta ke itsugarriak ere. Zureak, Jauna, esku harreragileak dira, ferekak haurrengan, bisitatutako gaixoak, lana danontzat, abesti eta dantza jai egunetan, laguntza eta konpainia dolu egunetan.

Zurean, Jauna, ez dago zapalduarik eta kontu korronteek ez dabe islatzen inor baino gehiago garanik. Agindu guzurtiek ez dabez kaleak gortzen eta telebistek ez dabez egiak itxuraldatzen edo erdizka kontatzen.

**Zure Erreinuak, Jauna, harritu egiten gaitu**  
Gure erreinetan beste batzuk diralako balioak. Zurean, Jauna, bakea hedatzen da plazetan eta zuzentasuna pobreen duintasuna eta eskubideak babesten ditu.

Zelan ulertu zure erreinua eta zelan eraiki gureak guztiz kontrakoa badira? Ezer gitxi dakigu Zu txiroagan onartzeaz, makalagan entzuteaz, presoagan askatzeaz, besteengan besarkatzeaz. Gitxi edo ezer ez dakigu gure esku izten dozun lan zailaz. Itzuli, Jauna, gugana eta berretsi pobre eta argiak, zuzentasunaren egarri diranak, errai bizi eta berba zintzodunak, Zutaz fidatzen diranak eta zure maitasuna itxaropenaren oinarri daukenak “zorioneko” deitu ebazan pregoia. Itzuli mundura, Barri Onaren Jauna, Mesias eta Profeta, Erreinuako Misiolari eta esaiguzu beste behin ere, nahiz eta ulertu ez, zure auzia ederra dala, gizakia askatzen daualako.